



mundukide


kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

2017

Txostena



www.mundukide.org



Eraldaketa sozialaren aldeko apustua



Raúl García Díaz

Mundukide Fundazioko lehendakaria

Indikadore ekonomikoen aurrerapauso positiboek, ezin digute galera **munduan ematen ari den balioen gainbehera** ikusten. Besteak beste, desberdintasunen handitzea, krisi migratzaile sakonak eta aldaketa klimatikoaren begibistako eraginak ezagututa.

Testuinguru honetan, datozen lau urtetarako **Plan estrategikoa onartu berri dugu** Mundukiden. **Garapenerako lankidetzari gehiago egin nahi dugu**, motibatuagoa eta profesionalagoa den lantalderekin, era berean gure gizartea humanoagoa bilaka dadin eraldaketa lana eginaz eta azkenik erakundearentzat finantza egoera egonkorra lortuaz.

Erronka guzti hauetatik, **gure gizartearekiko eraldaketaren** gaiaren inguruan zentratu nahi nuke bereziki. Indar berezi bat dago euskal mugimendu kooperatiboan eta baita beste erakunde batzuetan, eraldaketa sozialeko hainbat eremutan aurreratzeko. Berri ikaragarri ona eta gizartea hobetzeko aukera paregabea eskaintzen diguna. Hori bai, zerbait gaizki egiten ariko gara, gure indar guztiak piramidearen goienengo aldean dagoen gizarte bat hobetzeko lanean ari bagara soilik eta beste munduko izkina batzuetan bizi duten egoerez ahazten bagara.

Horregatik Mundukiden, alde batetik, **formakuntzaren, lanaren eta interkooperazioaren alde eginen dugu apustua**. Pertsonak, norberaren buruaren jabe izanik, etorkizun opa-roago bat izan ahal izateko aukerak eskainiaz. Bestalde, gure gizarteak hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan jarraitu dezan sentsibilizazio lana egitea eta bidea erretea da helburua.





Aurkibidea

Kooperazio kooperatiboa gara	4
Konpromisoa eta bisio bateratua	5
Kaptazioa eta sentsibilizazioa	6
III. Lasterketa solidarioa	7
Lantaldearen indarra	8
2 lan ildo	9
Mozambike programa	10
Brasil programa	12
Kuba, Kolombia eta Ekuador programa	14
2018-21 Planifikazio estrategikoa	15
Datu ekonomikoak	16

MUNDUKIDE FUNDAZIOA
Zarugalde 30
20500 Arrasate-Mondragón
Tel. 943 772010
mundukide@mundukide.org
www.mundukide.org

IFZ: G20673604

L.G.: SS 405-2016

Edizioa: Mundukide Fundazioa





Lankidetzako kooperatiboa gara

Iparralde, Hegoalde, Mendebalde eta Ekialdeko herrialdeen arteko aldeak txikituko dituen garapen eredu baten alde egiten dugu apustu. Ikuspegi globala ardatz duen eredua, guztiok osoatsunaren parte garen heinean, dagokigun zatiaren erantzule garelako kontziente izanik.

Balioak :

ELKARTASUN UNIBERTSALA

Hona hemen, Mundukiden parte hartzen dugun lanaren funtsa: Ekonomia solidarioan oinarritutako beste esperientzia batzuekiko eta demokrazia sozialaren aldean diharduten eragile guztiekiko elkartasuna; bakea, justizia eta garapena helburu izanik.

LANA

Gure lana, berez, ekintza eraldatzailea da, aldaketarako ekintza da, garapena lortzeko bidea. Mundukiden dihardugunon ustez, lana balio bat da berez eta lanak lehentasuna du kapitalaren aurretik.

ERALDAKETA SOZIALA

Mundukideekook eraldaketa bilatzen dugu, pertsona eta gizarte bidezkoagoak eta arlo guztietan autokudeaketara emanagoak lortzeko bidean; baita genero harremanen arloan ere. Ikuspegi horretatik, autonomiak berebiziko garrantzia du pertsona, kolektibo eta herri bakoitzak zer gizarte eredu izan nahi duen erabaki ahal izateko.

Konpromisoa eta bisio bateratua

50 urte luzetako esperientzia kooperatiboa da partekatzeko daukagun altxorrik preziatuena.

Mundukideren misioa da elkartasuna sustatzea, lan munduaren eskutik pobretutako herriei zuzendutako elkartasuna, hain zuzen. Horretarako, baliabideak eta Mondragon esperientzia kooperatiboaren jakintza bideratzen ditu Mundukideek, herrien protagonismoan oinarrituz eta haien irakaspenetara irekita egonez. Misio hori aurrera eramateko, Mundukideren xedea da enpresa eta unibertsitate arloko zenbait eragile kooperatibo inplikatzeara. Hegoaldean ez ezik, Fundazio inguruko eragile kooperatiboaren artean ere lan sareak bultzatzen dira: enpresak, kooperatibetako teknikariak, ikertzaileak, GKEak, Mundukideko boluntarioak eta unibertsitateko ikasleak. Herri ekonomiek protagonizatzen dituzten garapen prozesuetan ematen den laguntzak bi oinarri ditu: batetik, epe luzerako konpromisoa; bestetik, ezagutzaren, esperientzien eta ikaskuntzen norabide biko fluxua. Hori guztia aberastasun iturri da murgilduta dauden aktore guztientzat.





Kaprazioa eta sentsibifikazioa

MINUTU BAT EGUNERO

Lan esparruarekin zerikusia duen bazkide kanpaina da MBE. Dirutan eguneko minutu batek suposatzen duen ekarpena egitea proposatzen duena.

www.minutubategunero.org

GABONEI ZENTZUA EMATEN DIEN POSTALAK

Asko dira gure postal digitalen bitartez gabonak zoriontzen dituzten enpresa eta erakundeak, bide batez lankidetzako programekin elkarlanean arituz.

<https://www.mundukide.org/eu/diseinatu-zure-gabonetako-postala/>

MOZAMBIKERAKO ASISTENTZIA ETA FORMAZIOA

Ekimen honetan bildutako ekarpenekin, Mozambikeko familia nekazariei formakuntza eta asistentzia teknikoa eskeintzen zaizkie, komunitatearen bizitza hobetzeko helburuarekin.

<https://www.mundukide.org/eu/bloga/mozambikeko-nekazar-familiekin-lankidetzak-kanpaina/>

PATRONATOA BRASILEN

Ikusentzunezko dokumentuak, patronatoko eta hainbat kooperatibetako ordezkariak programa ezagutzeko Brasilera egindako bidaiko testigantzak batzen ditu.

<https://youtu.be/yxNyNinGKlc>



**minutubat
egunero.org**



III. Lasterketa Solidarioa



III. MUNDUKIDE LASTERKETA SOLIDARIOA

150 partehartzailek eta 20 boluntario baino gehiagok hartu dute parte urriak 22an Urkuluko urtegiaren ospatutako "Kooperatiben arteko III. Lasterketa solidarioan", kooperatibagintzaren ezaugarri gisa, pobretutako herraldeekin talde elkarlana aldarrikatuz.

<https://www.mundukide.org/eu/sentsibilizazio-ekintzak/lasterketa-solidarioa/>

FAGOR EDERLANEN ERRONKA - FET 10

Fagor Ederlan Tafalla kooperatibako partaideek, GERNA eta Mundukideko proiektuei laguntzeko, FET 10 Erronka solidarioaren bitartez diru biketa egin dute kooptibaren X. urteurrena ospatzeko. Euskal Herriko enpresa eta pertsona ugariaren bategiteaz bildutako 60.044 €ak bi elkarleen artean elkarbanatu dituztelarik. Riki Abad, Ederlan Tafallako bazkide eta ultrafondista nafarra erronkari emozioa jarriaz, Tafallatik Urkuluraino etorri zen lasterketarekin bat egitera. Hurrengo egunean eta nahikoa erronka ez balitz izan bezala, Arizmendiarietaren bizikletarekin bueltatu zen Tafallaraino erronkari bukaera emanez.

<https://youtu.be/z6l9co5TsC8>



Mundukidek eskerrak eman nahi dizkie **III. Lasterketa solidarioan** laguntzaile gisa aritutako enpresa, erakunde eta partikular guztiei izandako prestutasunagatik eta orokorrean proiektuarekin bat egiteagatik.



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Lantafdearen indarra

Enpresa eta kooperatiba laguntzaileak



Erakunde laguntzaileak



Erakunde publikoak



Mundukide erakunde hauetako kidea da 2017. urte bukaeran



Eskerrik asko!

2 lan ildoak



MUNDUKIDEK BAT EGITEN DU GARAPEN SOSTENGARRIRAKO HELBURUEKIN

Fundazioaren 2 lan ildoen bidez, NBEk 2030erako ezarritako Garapen Sostengarrirako Helburuak (GSH) lortzeko ahalegina egiten dugu. Mundukidek ia 20 urte daramatza egoera ahulenean dauden pertsonen gaitasunak indartzen, pertsona horien eta beren komunitateen garapen sozioekonomikoari laguntzeko eta, hala, helburu batzuk eskuratzeko, hala nola pobrezia eta gosea desagerraraztea, etengabeko prestakuntza sustatzea, emakumeak ahaldundutzea eta kontsumo nahiz produkzio modalitate sostengarriak bultzatzea.

1

ESKUALDEKO GARAPEN SOZIO-EKONOMIKOA

Pertsonen gaitasunak sendotu,
garapen pertsonala eta
komunitarioa indartzeko.



Azpiegiturak:
ureztapen sistemak



Hornikuntza eta
komertzializazio sarea



Nekazaritza
garapena

2

GIZARTE EKONOMIA SENDOTZEA

Lidergotza sendoa eta eraldaketa sozialerako bokazioa
duten talde egituratueta, enpresa arloa, antolaketa eta
kooperatibagintza indartuko duten programak.




Kudeaketa eta kooperatiba-
gintzari buruzko formakuntza



Jaurduera berriak
sortzeko laguntza



Enpresa sozialentzako
aholkularitza



Mozambique




Programaren helburua, tokiko herritarrek errenta sortzeko duten gaitasuna handitzea da. Horretarako berdintasunean eta sostengarritasunean oinarritutako garapen ekonomikoa sustatzen dugu, bertako pertsonak ahalik eta autónomo eta burujabeen izan daitezen.

ESKUALDEKO GARAPEN SOZIO-EKONOMIKOA

Hornikuntza eta komertzializazio sarea
Programak, besteak beste, hazi, lanabes, ongarri eta herbiziden erosketa erresten die nekazariei, batipat distantzia eta logistika arrazoiengatik isolaturik daudelako.

Laguntza teknikoa

Bertako nekazaritza erakundeekin lankidetzan arituaz, nekazariei laguntza teknikoa eskaintzen zaie.



KOOPERANTEAK



Juanjo Navarro Sanchez
(Marrupa)



Neida Vila Lago
(Montepuez eta Namuno)



Xacobo Nogueira Ferreira
(Balama)



Beñat Arzadun Olaizola
(Majune)



Julieta Benito (Montepuezeko nekazaria): “4 urte daramatzat Mundukiderekin lanean eta azken urte honetan egindako salmentak 5 aldiz handiagoak izan dira. Mundukiderekin jarraitu nahi dut, guztion gaitasunak eta salmentak gehiagora joan daitezen”.



2017 EKINTZEN EMAITZA

	EKINTZA	BITARTEKOAK	EMAITZA	EMAKUMEAK
	UREZTATZEA	919 ureztatze mikrosistema	561 ureztatutako hektarea	
	AHOLKULARITZA TEKNIKOAK	12 nekazal erakunderekin harremanetan	284 instruktore	45 emakume
	NEKAZARITZA EKOIZPENA	Barazkiak, sesamoa, patata, boer, manteiga . Holoco babarruna.	6.800 landutako hektarea 1.647.887€ eurotako ekoizpena	
	INTSUMOEN HORNIKUNTZA	79.200 € tan baloratutako hornikuntza	9.500 nekazari partehartzaile	4.350 emakume

2017an begi bistan gelditu dira, azken urtetan herrialdea jasaten ari den krisialdi sakonaren ondorioak. Hazkuntza ekonomikoak geldialdi nabarmena, monetaren balio-galtzea, barne kontsumoaren ahuldura, eta hainbat zerealen esportazioa erori egin da.

Egoera honek gizartean oso eragin ezkorra izan duenez, nekazariak beraien errenta produktuen ekoizpena murriztera behartuak ikusi dira, barazkiak batik bat, komertzializazioan izandako zailtasunak medio. Guztia, nekazari partehartzaileak mantenduz baina ureztatutako hektarea kopurua murriztuaz islatu da programan. Oraindik ez dago garbi zein izango den aurrerantzean joera baina argi dugu, ekoizpenerako alternatiba eta aukera berriak aurkitzen jarraitu behar dugula.

HELBURUAK 2018

- Nekazal ekoizpena eta komertzializazioa hobeto orekatuko duten produktu berriak sartu.
- Ureztatze sistema berriak ezarri.
- Bertako saltzaileekin akordua lortuaz, insumoen sarea indartzea.
- Kanpainen zehar, lurren neurketa eta datuen prozeduratarako sistema berria ezartzea.



Juanjo Navarro: 20 hektarea lur ureztatzeke urtegiak egin izana eta baserriar hasiberriei teknika eta ekoizpen berriei laguntzeko teknikariak ezarri izanak, ipar korredoreko familien ekonomia esponontzialki hasten lagunduko du.



Asier Elorza Ugarte
(Sergipe)



Iosu
Aranzabal Abaitua
(Paraná)




Julio Martinez Arija
(Eroski Koop-eko bazkia-
dea.Rio Grande do Sul)



**Jose Luis
Lejardi Bernaola**
(Rio Grande do Sul)

**Helburua, asentamen-
duetan eta kanpa-
lekuetan bizi diren
Lurrik Gabeko Neka-
zarien Mugimenduko
(MST) familien garapen
sozioekonomikoa
bultzatzea da.**



Imanol Igeregi eta Begoña Santamaria.
(Bolondresak. Paraná)

Brasilen, joan den ekitaldia trantsizio ekitaldia izan dugu, non 2007tik indarrean dagoen eskualde ikuspegia eta kooperatibentzako laguntzan oinarritutako ikuspegi nazionala uztartu diren. Ildo horretan, 10 urteko jardunaren ondoren, amaitu da Cantuquiriguaçuko eskualde programa. Hurrengo ekitalditik aurrera, eskualdeko kooperatibek laguntzen jarraituko dugu hegoaldeko hiru Estatuetan (Parana, Santa Catarina eta Rio Grande do Sul) sustatzen ari den ikuspegi berriaren barruan. Ikuspegi berri honen bidez, batetik, erreferentziatzko kooperatibetako pertsona konprometituak kudeaketan eta lankidetzaren trebatu nahi dira, eta, bestetik, Nekazaritza Erreformako Kooperatiben Konfederazioko kide diren kooperatiben kolektiboa kudeatzeko eredu propio bat sortu nahi da.



Carla Guindani (produktzio, komertzializazio eta ingurumen sektorearen arduraduna): Mundukiderekiko interkooperazioa oso garrantzi handikoa da MSTrentzat, eta ezinbestekoa Elizabeth e Joao Pedro Teixeira Prestakuntza Zentroarentzat, itxaropenezko sugar bat izan baitzen koiuntura zaila eta zalantzakoa bizi genuen garai batean. Nekazaritza erreforma sendotzea eta gizarte bidezko eta berdintasuneko bat eraikitzea ezinezkoa litzateke gure oinarriaren antolaketa eta plangintza barik. Asentamenduetako pertsonen parte hartzerik eta autonomiarik gabe produktzio sistemetan pentsatzea gure helburuen kontra jotzea litzateke, eta Mundukidek giza baloraziorako erremintak eta zenbakizkoetatik harago doazen balio batzuk eman dizkigu. Beraz, poz-pozik eta eskertuta gaude erakunde lagun honen ekarpenarekin. Eta sentipena daukat Mundukidek Brasilen zabaldu dituen haziek fruituak emango dituztela. Fruitu on!



2017 EKINTZEN EMAITZA

	Ekintza	Bitartekoak	Emaitza	Emakumeak
8 LAN DUNA ETA HAZKUNTZA EKONOMIKOA	Kooperatiba-gintzan aholkularitza	4 kooperante. Bertako 2 talde aholkulari	4 estatutan lagundutako 20 kooperatiba (4.953 bazkide)	Emakumeek osatutako 4 kooperatiba
4 KALITATE ONEKO HEZKUNTZA	Formakuntza	"Kooperatiben gestiorako teknikari" kurtsoa. Parana eta Santa Catarina eta Nordestean	85 formatutako pertsona	26 emakume
5 GENERO BERDINTASUNA	Generoa	Emakumeen eskolako VI. edizioa	50 emakume	50 emakume
17 ITUNAK HELBURUAK LOTZESKO	Interkooperazioa	Kooperatibena arteko interkooperazio dinamikak	MSTko Idazkaritza nazionalari eta estatu mailako 3 idazkaritzari aholkularitza. (PR,GS,SC)	
12 EKOIZPEN ETA KONSUMO ARDURADUNA	Ekoizpen ekologikoaren komertzializazioa	Nekazal erreformako produktuen 3 supermerkatu	30 urtetik beherako 21 langile	%80 emakumeak

HELBURUAK 2018

- Nekazaritza Garapeneko Idazkaritzaren eskutik eta Munduko Bankuaren finantzaketaren bidez, Cearako jarduerari ekin zaio tokiko ekoizle eta kooperatibekin.
- Eragileen arteko interkooperazio sistemak sendotzea: komertzializazioa, estatuetako kooperatiba zentralak, talde kudeatzaileak (kafea, esnea, ogia, arroza, babarrunak...).
- Parana, Santa Catarina eta Rio Grande do Sulen tokiko taldeak lanean hastea.
- Laguntza emateko ereduak hobetzea.



**Unax
Zabala
Arrizabalaga**
(Kolombia eta
Ekuador)



**Asier
Gastaminza
Santacoloma**
(Bolivia)

Kuba ekialdean 10 urtez jardun ostean, eta programa mendealdera zabaltzea ezinezkoa dela jakinik, **2016an erabaki zen Kubako jarduera progresiboki bertan behera uztea**, finantza erakundeekin hartutako konpromisoak betetz. 2017an, irlan Mundukideko langilerik bat ere ez dagoela, azken proiektua gauzatzea izan da han egindako lana. Beraz, amaitutzat ematen dugu Kuban egin dugun jarduera etapa.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Mundukideren ondoan kolaboratzen ibili diren pertsona guztiei, eta programan parte hartu duten guztiak animatu nahi ditugu kubatarren beharrei erantzungo dieten jarduera berriak sortzeari ekin diezaioten, Kuban tokiko garapen ekonomiko sostengarria lortzea helburu.

EKINTZA	BITARTEKOAK	EMAITZA	EMAKUMEAK
Nukleoak eta asistentzia teknikoa	Aholkularitzarako 2 nukleok egindako lana: Ahalduntzea /Enpresa planen garapenerako tailerrak Plangintza estrategiko partehartzailea/ Lekuko garapenerako planak	Aholkatutako 277 erakunde	2 aholkulari emakumezko
Formakuntza	Lidergotzari eta ekintzailetzari buruzko 9 edizio	90 erakundetatik etorritako 256 formatutako ikasle eta burututako 125 enpresa plangintza.	95 emakume
Ekoiztutako material didaktikoa		• CD interaktiboa. • "Negoziotarako Proiektua" eskuliburua	

Kolombia eta Ekuador

Aurreko urteetan egindako lanaren ostean, 2017ko lanaren lehen zatia Bolivia, Kolombia eta Ekuadorko errealitatea ezagutzean zentratu da; horretarako, egonaldiak egin ditugu herrialde horietan, eta solaskidetza landu dugu tokiko administrazioekin, ekonomia sozial eta solidarioko erakundeekin eta finantza erakundeekin. Kontuan harturik gure lankidetzat proposamena herrialde bakoitzaren lehentasunekin nola uztartzen den, GKEek herrialde bakoitzean jarduteko zer baldintza administratibo bete behar diren eta finantza erakundeek zein jardura lehenesten dituzten, Bolivia bazterrera utzi eta Kolombian eta Ekuadorren zentratu ditugu ahaleginak. Lanaren bigarren fasearen ondorioz, erabaki dugu jardura Kolombian, Nariñoko departamenduan hastea; bertan, Pastoko udalerrira izango da gure erreferentziatzeko lekua. Horrek aukera emango digu, gainera, pertsona berarekin Ekuador iparraldean mugakide diren probintzietan jardura bultzatzeko.

Planifikazio estrategikoa



2017ko azken hiru hilabeteetan, **2018-2021 epealdirako bideragarritasun estrategikoa lantzen aritu da Mundukide**. Prozesua oso partehartzailea izan da eta makina bat lantaldean inplikaturako jendea; kooperatibetako ordezkariak, boluntarioak eta beste hainbat eragile.

Datorren **urtetarako norabide printzipala kooperazioa multiplikatzeko da**. Alde batetik Mozambike eta Brasileko programen inpaktua handitzea. Horrez gain, Kolonbia eta Ekuadorren programa berriein hastea eta oraindik identifikatu gabeko Afrikako herrialde batean ekitea, bildutako esperientzia aprobetxatuz.

Hori dela eta **lantaldea handitzea ekarriko digu**. Bai kooperante kopurua eta baita boluntario taldea ere.

Barne antolakuntza hobetzera ere eramango gaitu, partehartze eta koordinazio sistema berriak ezarriaz.

Ilusioz Beteta bukatu dugu prozesua, gizarteari eta eraldaketa sozialari gure ekarpena egiteko konpromiso tinkoarekin.

Apustu tinkoa, bildutako esperientzia erreplikatzeko eta berriak gartzeko. Eta ahalik eta pertsona eta familia gehiagoren bizitzak hobetzeko gogo biziz. Beharra eta handia duten lekuetan.



Erronkak:



LANKIDETZA MULTIPLIKATU

Metatutako esperientzia erreplikatu eta esperientzia berriak garatzea.



PERTSONAK

Pertsonen konpromiso, motibazio eta profesionaltasunean aurrera egitea.




GURE INGURUNEKO ERALDAKETA SOZIALEAN INPLIKATU

Posizionamendua zehaztea eta gure kooperatibetako eraldaketa sozialeko proiektuetan dugun inplikazioa handitzea.



SOSTENGARRITASUN FINANTZARIOA



Mundukideren finantza beharrei erantzutea.



Datu ekonomikoak



DIRU SARRERAK	1.884.205 €	100 %
KOOPERATIBAK	744.674 €	40 %
ERAKUNDE PUBLIKOAK	841.282 €	45 %
GGKEaK	65.000 €	3 %
PARTIKULARRAK	90.057 €	5 %
HEGOALDEAN JASOTAKO LAGUNTZAK	98.283 €	5 %
BESTELAKOAK	44.908 €	2 %
GASTUAK	1.884.205 €	100 %
INTERKOOPERAZIOA	1.635.210 €	87 %
INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE	662.583 €	35 %
INTERKOOPERAZIOA KUBA	152.785 €	8 %
INTERKOOPERAZIOA BRASIL	392.058 €	21 %
INTERKOOPERAZIOA KOLOMBIA / EKUADOR	98.658 €	5 %
INTERKOOPERAZIO OROKORRA	39.614 €	2 %
HITZARTUTAKO PROGRAMAK	289.511 €	15 %
GASTU OROKORRAK	248.995 €	13 %
FONDOEN KAPTAZIOA	44.274 €	2 %
SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	54.953 €	3 %
KUDEAKETA	149.768 €	8 %
EMAITZA	0 €	



NAZIOARTEKO KOOPERAZIOA

- INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE
- INTERKOOPERAZIOA KUBA
- INTERKOOPERAZIOA BRASIL
- INTERKOOPERAZIO OROKORRA
- INTERKOOPERAZIOA KOLOMBIA ETA EKUADOR

GASTUAK ATALKA

- SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA
- INTERKOOPERAZIOA
- FONDOEN KAPTAZIOA
- GESTIOA